

# OINARRIZKO GAITASUNAK

Berritzegune Nagusia /  
Arloak

INDIZEA

**OINARRIZKO GAITASUNAK**

 **METODOLOGIA**

 **EBALUAZIOA**

Berritzegune Nagusia / Arloak

# OINARRIZKO GAITASUNAK

1. NONDIK DATOR GAITASUN KONTZEPTUA?
2. GAITASUNA: KONTZEPTURA HURBILTZEA
3. ZERGATIK HITZ EGITEN DUGU OINARRIZKO GAITASUNEZ?
4. CURRICULUMA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK
5. ZEINTZUK DIRA EAEko CURRICULUMEKO OINARRIZKO GAITASUNAK?

# NONDIK DATOR GAITASUN KONTZEPTUA?

**GINARRIZKO GAITASUNEN MARKO EUROPARRA (2006/09)** gauzatu arteko aldiak :

**1996: DELORS** txostena: Hezkuntzaren **4 oinarriak**.

**2000:** Lisboako Kontseilu Europarraren ondoren, **oinarrizko kualifikazioen** erreferentzia-esparru europar bat zehazteko prozesua hasi zen.

**2002:** ELGE-OECDk **DeSeCo** txostena prestatu zuen; **PISA** proben oinarria.

**2005:** Europako Batasunak **hezkuntzarako** funtsezko gaitasunak, **gaitasun giltzarriak**, zehaztu zituen.

**2006:** Europako Parlamentuak onartu zuen, gomendio gisa, estatu kideen curriculumetan **oinarrizko gaitasunak** txertatzea.

**2006:** MEC-ek gutxienezko ikaskuntzen dekretuetan sartu zituen oinarrizko gaitasunak.

**2007:** EAEko curriculumak oinarrizko gaitasunak txertatu eta gaitasun orokorrak gehitu zituen.

## Dekretua

I. eranskina: LH ordutegia

II. eranskina: DBH ordutegia

**III. eranskina: Oinarrizko  
gaitasunak**

IV. eranskina: LHko arloak (sei arlo)

V. eranskina: DBHko irakasgaiak (hamahiru  
irakasgai)

# OINARRIZKO GAITASUNAK

**Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna**

**Ikasten ikasteko gaitasuna**

**Matematikarako gaitasuna**

**Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna**

**Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko  
gaitasuna**

**Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna**

**Giza eta arte-kulturarako gaitasuna**

**Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna**

Berritzegune Nagusia / Arloak

## **2. GAITASUNA: KONTZEPTURA HURBILTZEA**

Berritzegune Nagusia /  
Arloak

# GAITASUNA: KONTZEPTURA HURBILTZEA

**DeSeCo txostena (2002)**

*“Era egokian eskaerei erantzuteko eta egitekoak gauzatzeko ahalmena. Sortzen da trebetasun praktikoak, ezagutzak, motibazioa, balore etikoak, jarrerak eta beste gizarte osagai eta portaera ezaugarri batzuk konbinatzen direnean. Horiek aldi berean mobilizatzen dira ekintza eragilea lortzeko”.*

**Europako Parlamentuak honela definitzen ditu gaitasunak (2006)**


*“Ezagutzen, trebetasunen, jarreraren eta baloreen konbinazio integratua, testuinguruari egokituak, oinarrizko hezkuntzan dauden ikasle guztiek garapen pertsonala lortzeko, hiritar aktibo bihurtzeko eta gizartean integratzeko behar dituztenak”*



# GAITASUNA: KONTZEPTURA HURBILTZEA

Definizio guztiek ideia hauek biltzen dituzte:

- Gaitasuna “egiten jakitea”n datza, hau da, ezagutza kontuan du, baina aplikatua.
- “Egiten jakin” hori zenbait testuinguru eta egoera praktikotara egokitu eta erabili ahal/behar da.
- Gaitasunak izaera integratua du; beraz, gaitasun bakoitzak ezagutzak, prozedurak eta jarrerak biltzen ditu.



Berritzegune Nagusia / Arloak

# GAITASUNA: KONTZEPTURA HURBILTZEA

Horregatik, Gaitasuna honela defini daiteke:

**Testuinguru jakin batean, zereginak edo atazak eraginkortasunez burutzeko zein askotariko egoerei aurre egiteko ahalmena edo trebetasuna da. Horretarako, jarrerak, abileziak eta ezagutzak, aldi berean eta elkarri loturik, baliatu behar dira.**

### **3. ZERGATIK HITZ EGITEN DUGU OINARRIZKO GAITASUNEZ?**

Berritzegune Nagusia /  
Arloak


# ZERGATIK HITZ EGITEN DUGU OINARRIZKO GAITASUNEZ?

**IKASLEAK DERRIGORREZKO ESKOLALDIA AMAITZEN  
DUENEAN GARATUTA IZAN BEHAR DITU**

**ZERTARAKO?**

- **Pertsona gisa hazteko**
- **Hiritartasun aktiboa landu eta garatzeko**
- **Helduarora arrakastatsu heltzeko**
- **Bizitza osoan zehar etengabe ikasten jarraitzeko**

# ZERGATIK HITZ EGITEN DUGU OINARRIZKO GAITASUNEZ?



# **4. CURRICULUMA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK**

Berritzegune Nagusia /  
Arloak

# CURRICULUMA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK

## CURRICULUMA

HONEK EGITURATZEN DITU

## IRAKASGAIAK


HAUEK DITUZTE BEHAR DIREN ERREFERENTEAK

## OINARRIZKO GAITASUNAK

GARATZEKO HEZKUNTZA ETAPA JAKIN BATEAN

Berritzegune Nagusia / Arloak

# OINARRIZKO GAITASUNAK



Berritzegune Nagusia / Arloak



# CURRICULUMA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK

CURRICULUMEKO **IRAKASGAIEN ETA EREMUEN** BIDEZ



Berritzegune Nagusia / Arloak

# CURRICULUMA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK

**HELBURUAK**

**EDUKI-MULTZOAK**

**OINARRIZKO  
GAITASUNAK**


**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**

**Helburuen lorpen-maila neurtzeko  
adierazleak**

Berritzegune Nagusia / Arloak

# CURRICULUMA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK


**IRAKASGAIA**



**OINARRIZKO  
GAITASUNA**

Erlazioa ez da unibokoa

**IRAKASGATAK**



**OINARRIZKO  
GAITASUNAK**

# *eragileak dira*

- IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUA
- IKASLEEN PARTAIDETZA
- DENEK ADOSTUTAKO BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK
- ERABILTZEN DIREN METODOLOGIAK
- BALIABIDE DIDAKTIKOAK
- TUTORETZA PLANGINTZA
- IKASTETXEKO LIBURUTEGIA, LABORATEGIAK, TAILERRAK
- 

•...

Berritzegune Nagusia / Arloak

# CURRICULUMA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK

## KONTUAN HARTU BEHARREKO ZENBAIT DATU:

- Gaitasunak erreferente dira Curriculumari buruz hartu behar diren erabaki guztietan; batez ere, *metodologiari* dagozkionetan.
- Gaitasunek izaera dinamikoa dute, aldatu eta garatzen dira.
- Ezin dira zuzenean ebaluatu. Gaitasunen garapena egiazta daiteke helburu eta ebaluaziorako irizpideen bidez.
- Gaitasunak ezin dira gutxieneko edukiak balira bezala neurtu; nahitaezkoak eta beharrezkoak diren edukiak identifikatzen dituzte.
- Ez dira independenteak; elkarrekin erlazionatzen dira.
- Ez dago erlazio unibokorik gaitasunen eta irakasgaien artean.
- Irakasgaien bidez ez ezik, antolakuntza, tutoretza, eskolaz kanpoko ekintza eta abarren bidez ere garatzen dira.
- Ezin dira bereizi testuinguru soziokulturaletik.

# **5.ZEINTZUK DIRA EAEko CURRICULUMeko OINARRIZKO GAITASUNAK?**

Berritzegune Nagusia /  
Arloak

# EAEko CURRICULUMENKO OINARRIZKO GAITASUNAK

- 1. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna**
- 2. Ikasten ikasteko gaitasuna**
- 3. Matematikarako gaitasuna**
- 4. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna**
- 5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna**
- 6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna**
- 7. Giza eta arte-kulturarako gaitasuna**
- 8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna**

# KULTURA ZIENTIFIKO, TEKNOLOGIKO ETA OSASUN KULTURARAKO GAITASUNA



Berritzegune Nagusia / Arloak



# KULTURA ZIENTIFIKO, TEKNOLOGIKO ETA OSASUN KULTURARAKO GAITASUNA

Ingurune fisikoarekiko harremani erreparatzen die gaitasun honek, eta, berriaz, ingurune fisikoaren natura- alderdiei eta gizakien ekintzaren ondoriozko alderdiei. Hala, gaitasun honek aukera ematen du gertakariak ulertzeko, gertakarien ondorioen aurreikuspenak egiteko, eta norberaren eta gainerako pertsonen eta izaki bizidunen baldintzak hobetzeko eta kontserbatzeko jarduerak egiteko. Azken finean, gaitasun honek askotariko trebetasunak izatea eskatzen du, egokitasunez, autonomiaz eta ekimenez jarduteko bizitzako eta jakintzako askotariko eremutan (osasuna, ekoizpen-jarduera, kontsumoa, zientzia, teknologia-prozesuak, etab.), eta mundua interpretatzeko. Horrek guztiak hau eskatzen du: gertakariak jakintza zientifikoaren eremu askoren ikuspegitik aztertzeke behar diren oinarriko kontzeptuak eta printzipioak aplikatzea.

# IKASTEN IKASTEKO GAITASUNA



Berritzegune Nagusia / Arloak

# IKASTEN IKASTEKO GAITASUNA

ikasleak ikasten ikas dezan, norberaren gaitasunen eta jakintzen jabetza, kudeaketa eta kontrola izan behar du, bere burua pertsona trebe eta eraginkortzat hartuz; orobat, ikasleak pentsamendu estrategikoa izan behar du, lankidetzan jarduteko ahalmena eta bere burua ebaluatzekoa; eta lan intelektuala egiteko teknikak eskuratu behar ditu. Hori guztia ikasketa-espereientzia kontziente eta atseginen bidez garatzen da, bai banaka, bai taldean.

# MATEMATIKARAKO GAITASUNA

Solving the equation by one American:

$$\frac{1}{n} \sin x = ?$$

$$\frac{1}{n} \cancel{\sin} x =$$


$$\cancel{\text{six}} = 6$$

Como muestra la figura, el prisma cuadrado  $ABCD-A_1B_1C_1D_1$ ,  $AB=AD=2$ ,  $DC=2\sqrt{3}$ ,  $AA_1=\sqrt{3}$ ,  $AD \perp DC$ ,  $AC \perp BD$ , y el punto de intersección de la perpendicular es  $E$ ,


(i) Comprobar que  $BD \perp A_1C$ :

(ii) Determinar el ángulo entre los dos planos  $A_1BD$  and  $BC_1D$ :

(iii) Determinar el ángulo formado por las líneas  $AD$  y  $BC_1$ , que están en diferentes planos.



	Erauldien	Hautsiak	Hautsigabeak
Osagai 1	23,5	11,3	88,7
2 osagai	22,0	34,4	65,6
3 osagai	14,8	53,6	46,4
4 osagai	11,2	65,2	34,8
5 (edo geh.) osagai	28,6	78,2	21,2
Denera:	100 %	47,9	52,1




Berritzegune Nagusia / Arloak

# MATEMATIKARAKO GAITASUNA

Gaitasun hau zenbakiak, horien oinarrizko eragiketak, matematika-sinboloak eta matematikako adierazpen eta arrazoitze moduak erabiltzeko eta lotzeko trebetasuna da, bai informazioa sortzeko eta interpretatzeko, bai errealitateko alderdi kuantitatibo eta espazialei buruzko jakintza handitzeko, bai eguneroko bizitzako eta laneko arazoak konpontzeko.

# HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA





Berritzegune Nagusia / Arloak

# HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA

Gaitasun honen funtsa hizkuntzaren erabilera da, bai ahozkoa zein idatzizkoa, bai errealitatea adierazi, interpretatu eta hura ulertzeko egindakoa, bai jakintza eraikitze eta komunikatzeko egindakoa, bai eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta norberak erregulatzeko egindakoa.

# INFORMAZIOA TRATATZEKO ETA TEKNOLOGIA DIGITALA ERABILTZEKO GAITASUNA




Berritzegune Nagusia / Arloak



# INFORMAZIOA TRATATZEKO ETA TEKNOLOGIA DIGITALA ERABILTZEKO GAITASUNA

Informazioa bilatzean, lortzean, prozesatzean, komunikatzean eta informazio hori jakitate bilakatzean datza gaitasun hau. Gaitasun honek eskatutako trebetasunen artean daude, besteak beste, informazioa eskuratzekoa, hura tratatu eta informazio-euskarrietara transmititzekoa, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informatzeko, ikasteko eta komunikatzeko erabiltzekoa.

# GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA



ESPEKULAZIOERIK  
**EZ!!!**

HERRI KONTZENTRAZIOAK  
MAIATZAK **27**

ORDUA:  
LEKUA:

www.elkartzen.org

ETXEBIZITZA ESKUBIDEAREN ALDE  
ALOKAIRU SOZIALA **BULTZATU!!!**


A political poster featuring a house icon with a diamond in the window and two dollar signs above it. The text is in bold, black, sans-serif font. The bottom part of the poster is torn, revealing a white background with more text.

Berritzegune Nagusia / Arloak

# GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA

Gaitasun honek aukera emango dio ikasleari zer gizarte-errealitate bizi duen ulertzeko, lankidetzaz jarduerak egiteko, bizikidetzaz lantzeko, eta herritartasun demokratikoa gizarte plural batean erabiltzeko. Halaber, gizarte hobetzen laguntzeko konpromisoa hartzeko aukera emango dio. Gaitasun honek askotariko jakintzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu, beharrezkoak direnak ikasleak gizartean parte har dezan, erabakiak har ditzan, egoera jakinetan nola jokatu hauta dezan eta egindako hautuen ardura har dezan.

# KULTURA HUMANISTIKO ETA ARTISTIKORAKO GAITASUNA




Berritzegune Nagusia / Arloak

# KULTURA HUMANISTIKO ETA ARTISTIKORAKO GAITASUNA

Giza eta arte-kulturarako gaitasunak berekin dakar kultura- eta arte-adierazpenak ezagutzeko, ulertzeko, balioesteko eta ikuspegi kritikoz baloratzeko gaitasuna. Ikasleak gozatzeko eta bere burua aberasteko erabili behar ditu adierazpen horiek, eta herrien ondare-elementutzat jo. Gaitasun honek kultura artekotasunaren ikuspegia hartuko du, eta lehentasuna emango dio euskal kulturaren arte- eta kultura-adierazpenei. Hau ulertuko da euskal kulturatzat: oinordetzan jasotako kultura jatorrizkoaren, euskal kulturak propietzat hartu dituen kulturen eta egungo euskal herritarren kulturaren emaitza.

# NORBERAREN AUTONOMIARAKO ETA EKIMENERAKO GAITASUNA



# NORBERAREN AUTONOMIARAKO ETA EKIMENERAKO GAITASUNA

Gaitasun honek eskatzen du, alde batetik, elkarrekin lotutako zenbait balio eta jarrera pertsonalen kontzientzia izatea eta horiek aplikatzea. Hona balio eta jarrerok: ardura; irmotasuna; nor bere burua ezagutzea eta auto-estimua izatea; sormena; autokritika; kontrol emozionala; hautatzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmena izatea; eta berehala asebetetzeko premia atzeratzeko, akatsetatik ikasteko eta arriskuak hartzeko ahalmena izatea.